

Fukushiman plutonioa isuri zela eta gehiago ikertu behar dela esan dute ikertzaileek

Fukushimako hondamendia gertatu zenean, Daiichi zentral nuklearretik atmosferara isuritako plutonioaren arrastoak topatu dituzte landareetan, nazioarteko zenbait ikertzailek egin berri duten ikerketa batean. Stephanie Schneider da ikerketa-burua, eta emaitzak irekian eta on line argitaratu dituzte, *Nature* aldizkariaren webgunean. Emaitzen eta ondorioen berri ematearekin batera, eskaera bat ere egin dute: plutonio-arrastoak sakon iker ditzatela, susmoa baitute uste zuten baino plutonio gehiagok egin zuela ihes zentraletik.

Artikuluaren adierazi dutenez, istripuaren ondoren egindako ikerketa gehienek fisioaren produktu lurrinkorrei jarri diete arreta. Hain zuzen ere, 1, 3 eta 4 unitateetan gertatu ziren gas-leherketetan, iodoaren, zesioaren, telurioaren eta beste elementu batzuen isotopo erradioaktiboak jaurti ziren ingurumenara. Aldiz, uste zuten ez zela aktinidoen isuririk gertatu, edo, izatekotan, isuria oso-oso mugatua izan zela.

Aktinidoen isotopo guztiak erradioaktiboak dira (alfa-erradiozioa igortzen dute),



Fukushima inguruko eremu bat, erradiozioagatik itxita. ARG.: ABASAA/DOMEINU PUBLIKOA.

eta erdibizitza luzea dute. Haien artean, plutonio-239 eta plutonio-240 isotopoak nabarmentzen dira: lehenak 24.110 urteko erdibizitza du, eta, besteak, 6.561koa. Eta, hain justu, haietan jarri du arreta ikertzaile-taldeak. Zehazki, lurreko eta landareetako plutonioa neurtu dute, eta, gainera, iraganean arma nuklearrek askatutako plutonioa ingurunean badagoela kontuan hartuta, plutonio hori eta erreaktoretik isuritakoa bereizteko gai den azeleragailu masa-espektrometro bat erabili dute (AMS).

Teknika horren bidez, lurrean ez dute erreaktoretik ihes egindako plutoniorik aurkitu; bai, ordea, landareetan. Hain justu, zentraletik hurbil zeuden landare batzuetan aurkitu dute plutonioa, baina ez

denetan. Hala ere, bada hori baino datu deigarriagorik: ikertzaileek susmoa dute zentraletik 16 km-ra zegoen beste landare batek ere bazuela plutonioa. Hori hala babiliz, esan nahiko luke plutonioa ez zela denean berdin hedatu, eta, beraz, litekeena dela pertsonak zeuden lekuetara iritsi izana eta haiek plutonioa amastu izana.

Horiek horrela, emaitzak ikusita eta beste ikertzaile batzuek ere plutonioa aurkitu izan dutela aintzat hartuta, auzia sakon aztertzea eskatu dute artikuluaren.

Dena den, azken asteetan, zentralaren inguruan lanean dabiltzanen kezka nagusia tangetan duten ur erradioaktiboak da (ikusi 28. orrian Ken Buesseler ikertzaileari egindako elkarrizketa). ●

GIBarekin infektatutako organoen transplanteak baimentzeko asmoa dute Estatu Batuetan

Orain arte, Estatu Batuetan, beste herrialde gehienetan bezala, hiesaren birusarekin infektatutako organoak ez dira onartu transplanetak egiteko; hau da, infektatutako pertsonak organoen hartzaile izan daitezke, baina ez emaille. Alabaina, orain legea aldatzekotan dira, eta, hartzaile seropositiboentzat, infektatutako organoak ere baimenduko dira.

Dena dela, Estatu Batuak ez lirake aitzindariak izango, Hegoafrikako Errepublikan

2008an egin baitziren infektatutako organoen lehen transplanteak. Zehazki, hiesa zuten lau pazienteri infektatutako giltzurrunak transplantatu zizkieten. *New England Journal of Medicine* aldizkarian argitaratu zituzten emaitzak; artikuluan azaltzen denez, kasu guztiak arrakastatsuak izan ziren. Geroztik, era horretako beste hainbat transplante egin dituzte Hegoafrikako Errepublikan.

Esperientzia horretan oinarrituta, aurren, Israelen, GIBA

duten eta bizirik dauden bi pertsonen arteko lehen giltzurrun-transplantea egin dute. Sendagileek adierazi dutenez, kasu horretan ere dena ondo joan da.

Estatu Batuetan, giltzurrunenaz gain, beste organo batzuen transplanteak ere egin nahi dituzte. Izan ere, *Current HIV/AIDS Reports* aldizkari espezializatuak argitaratu berri duen artikuluan baten arabera, gibela transplantatzeko eskaria ere handitzen ari da. Bada, artikulua gaiari buruzko iker-

keten azterketa bat da, eta horbertan azaldu dutenez, anti-retrobilaren bidezko terapiari esker, ez dago arrazoirik infektatutako organoak ez transplantatzeko. Hori bai, errefusa eta infekzioak saihesteko kontu berezia izan behar dela ohartarazi dute artikulugileek.

Edonola ere, baimena lortu arren, transplanteak egiten hasterako urtebete igaro daitkeela ohartarazi dute, transplanteak egiten hasi aurretik araudi klinikoa eta etikoa osatu behar baitira. ●